

OINARRIAK

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

- 16 eta 29 urte bitartekoa izatea.
- Erandion edo Txorierri eskualdeko beste udalerriren batean erroldatuta egotea edo udalerrri horiekin lotura akademikoa izatea.

**HELBURUAK**

- Ekintzailatza-grina eta ekimen berritzaileak sustatzea, aukerak eskainiko dituen etorkizuna bultzatzeko.
- Talentua, talde-lana eta lan eta ahalegin pertsonala sustatzea.
- Gazteen artean gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bultzatzea.
- Lan bila ari diren pertsonen ahalduntzeko tresnak eskaintzea.
- Ikasketak amaitu dituzten pertsonen ekintzaile izateko gaitasunak ematea.

**IZEN-EMATEA ETA PROZESUA**

Lehiaketan izena emateko, bete inprimakia honako lotura honetan: [bit.ly/Aktibatuzureideiak2025](http://bit.ly/Aktibatuzureideiak2025).

Izena emateko epea 2025eko urriaren 12ra artekoa izango da..

Behin izena emanda, parte-hartzaileek informazio- eta prestakuntza-saio batzuk jasotzeko aukera izango dute, proiektuaren sorkuntza eta aurkezpena hobetzeko.

Proiektua aurkezteko epea 2025eko azaroaren 12ra artekoa izango da.

Proiektuak posta elektroniko bidez entregatuko dira [udalgaztediplana@erandio.eus](mailto:udalgaztediplana@erandio.eus) helbidean. "Aktibatu Zure Ideiak2025" esaldia eta parte-hartze zenbakia adieraziko dira.

**PROIEKTUAREN AURKEZPENA**

Proiektua aurkezpen formatuan aurkeztu ahal izango da, gehienez ere 20 diapositibarekin.

**NOLA BALORATUKO DIRA PROIEKTUAK?**

Sari bakoitza proiektu bakar bati emango zaio, proiektua egin duen pertsona-kopurua edozein dela ere.

Epaimahaiak 0 eta 10 bitarteko puntuazioa emango dio proiektu bakoitzari, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Baliagarritasuna: konpontzen duen arazoaren tamaina eta hartzaile potentzialen kopurua kontuan hartuko dira.
- Balio ekonomikoa: proiektuak negozioa sortzeko edo errentagarritasun ekonomikoa izateko duen potentziala.
- Izaera berritzailea: proiektua Erandion aurretik egin ez izana kontuan hartuko da.
- Bideragarritasuna: proiektua oinarri hartuta zerbitzu edo produktu berri bat sortzeko erraztasuna.
- Kalitatea eta argitasuna: aurkezpenaren koherentzia eta argitasun-maila.

Aurreko irizpide bakoitzak 0 eta 2 bitarteko puntuazioa jasoko du. Epaimahaiak modu independentean baloratuko du Gizarteratzeko aparteko saria, gehienez ere 10 punturekin.

**SARIAK ETA AMAIERA-EKITALDIA**

Hiru sari banatuko dira:

1. Kategoria: Proiektu onenaren saria.  
Aurreko puntuan aipatutako irizpideen arabera baloratutako proiekturik onenari 1.000 euroko saria emango zaio.

2. Kategoria: Aniztasunari eta Gizarteratzeari emandako aparteko saria.  
500 euroko saria emango zaio gizarteratzea gehien sustatzen duen proiektuari.

3. Kategoria: Aurkezpen onenaren saria.  
500 euroko sari bat emango zaio 10 proiektu finalisten arteko aurkezpen eta azalpen onenari. Aurkezpen bakoitzak 8 minutuko gehienezko iraupena izango du.

Erandioko Udala arduratuko da sariak banatzeaz.

Zalantza edo iradokizunik izanez gero, jarri harremanetan gurekin helbide elektroniko honen bidez:

[udalgaztediplana@erandio.eus](mailto:udalgaztediplana@erandio.eus)